



Bergarako
Udala

LANKIDETZA-HITZARMENA, ENPRESARE ELKARTEAREN ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKOA

Bergaran, 2021eko Azaroaren 25ean.

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udaleko alkatea eta erakunde horren ordezkaria dena, M^a Concepción Ugalde Izeta udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Xabier Berasategi Sagastume, ENPRESARE elkartearen lehendakaria, elkartearen izenean.

Azken honek zinpean Alkatearen aurrean aitortu ondoren ez bera eta ez berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako debeku-kasuetan dirulaguntzak jasotzeko, elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmena aitortu eta honako hau

ADIERAZI DUTE

Orain dela urte batzuk ENPRESARE Foroa sortzeko pausoak ematen hasi ziren Miguel Altuna Institutua eta Bergara, Elgeta eta Antzuolako enpresa batzuk elkarlanean, Debagoieneko Garapen Agentziarekin eta Bergarako Udalarekin lankidetzan. Foroak, sektore ezberdinen arteko lankidetzaren bitartez, sisteman eragitea eta berrikuntza erradikalen potentziala duten jarduerak bultzatzea du helburu.

Geroztik, foro hori dinamizatzeko eta egonkortzeko hainbat lan egin dira eta 2018ko ekainetik 2021eko uztailera bitartean Lanbide Heziketa Lagunak - LHL elkartearen ENPRESARE Foroa kudeatzen aritu da Bergarako Udalaren dirulaguntzari esker, horretarako sinatuko hitzarmenaren bidez.

Orain arte egindakoak baloratu ondoren, 2021eko irailetik 2022ko irailera bitartean **ENPRESARE proiektua garatzen jarraitzeko** asmoa du ENPRESARE elkarte gisa eratu ondoren, honako arrazoiengatik:

- ENPRESARE Elkartearen 2021ean erakunde bezala eratu da eta gaur egun egiten ari diren jardueren jarraipena beharrezkoa ikusten du: Proiektua eta enpresa foroak martxan daude eta baita enpresekin lan taldean partekatutako eta bakarka jorratzen ari den ibilbidea ere.



- Aldi berean, enpresa berrien kaptazio lana egiten ari da eten gabe, gaur egungo 22 enpresen taldea 25era iristeko.
- Bide honetan, Miguel Altuna Institutuaren ekarpena ere izango da, LHL elkarte eta baita eskola bera ere enpresen kaptazioan, kokapen fisiko eta baliabidetan eta aditu bezala.
- Azken urtean egindako lanaren balorazioa oso positiboa izan da, eta ekimenaren jarraipenak garrantzi handia duela baloratu da enpresa partaide guztien aldetik, eta baita ENPRESARE Foroko Zuzendaritza komitearen aldetik ere, Bergarako Udala komite horretako partaide izanik.

ENPRESARE elkarteak proiektua kudeatzen jarraitzeko aurkeztutako proposamena begi onez ikusi dute elkarteko Zuzendaritza komiteak: Miguel Altuna Institutua, LHL elkarte, Elay SL, Grupo TTT SA, Lazpiur SA, Tornilleria Segur SA, Zerbimek SL, Debagoieneko Garapen Agentzia eta Bergarako Udala, eta baita bazkideak ere.

Jarraipeneko proiektu honek urte bateko iraupena du, kostua 30.000 eurokoa da eta aurrera eramateko elkarteak dirulaguntza eskatu dio Bergarako Udalari.

Begarako Udalak, 2021eko azaroaren 25ean emandako dekretu baten bitartez, kontuan izanda gaur egun elkartearen helburua dela, besteak beste, Bergarako eta inguruko enpresen arteko elkarlana bultzatzen jarraitzea, beste erakunde eta agenteekin erlazionatu eta lankidetzatza sustatzeko eta horrela udalerriko enpresen jardura ekonomikoa ere sustatuz, erabaki du aurkeztutako proiektua burutzeko dirulaguntza ematea eta bi aldeen betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, beronen klausulak ondorengoak izanik:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: ENPRESARE elkarteak 2021eko urriaren 14an aurkeztutako proiektua burutzeko konpromisoa hartzen du.

Proiektu horren eginbehar nagusiak honako hauek izango dira:

- Enpresekin ekimenak bideratzen jarraitu.
- Gai desberdinetako jardunaldiak eskaini.
- Arlokako mahaiak lantzen jarraitu.
- Ferietara proiektua landu.
- Negozio eredua berraztertu.
- Enpresa bazkide kopurua gehitu.
- Enpresen partaidetza eta konpromisoa sustatu.
- Komunikazio plana zehaztu eta ezarri.
- Baliabide teknikotan prestakuntza jaso.
- Ordezkaritza-lana: Sare eta Agenteen artean.
- Beste erakunde eta Agenteekin erlazionatu eta lankidetzatza sustatu: Basque Precision Technology District BPTD, Goierri Valey, Iraurgi Berritzen, Asigroup, Ner... besteak beste.





Bergarako
Udala

ENPRESARE elkarteak proiektua garatzeko hamabi hilabete izango ditu, eskaera aurkeztu zen egunetik kontatzen hasita.

Halaber, honako konpromiso hauek hartzen ditu elkarteak:

- Proiektuaren fase bakoitzaren jarraipena, prozesuaren azalpena jasoko duen txostena aurkeztea Bergarako Udalari. (3 hilero)
- Proiektu honen inguruan publizitaterik egingo balitz, Bergarako Udalaren laguntza duela adieraztea.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerakoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerakoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan bultzatu eta gehituko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

BIGARRENA.- Bergarako Udalak 30.000 euroko dirulaguntza emateko konpromisoa hartzen du.

Dirulaguntzaren lehen zatia (dirulaguntzaren % 60a, hau da, 18.000 euro) ordaindu egingo da elkarteak betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatu eta hitzarmen hau sinatu ondoren.

Bigarren zatia jasotzeko (% 40a, hau da, 12.000 euro), 2022ko irailaren 31 baino lehen, proiektuaren memoria aurkeztu beharko du elkarteak, eta baita honako dokumentazio hau ere:

a) Dirulaguntza jasotzeko eskaera-orrria, behar bezala beteta eta sinatuta.

b) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzaileen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala, balego).
- Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia...).
- Fakturatutako –edo pareko dokumentuan jasotako– gastuaren kontzeptua
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– zenbatekoa
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– jaulkipen-data
- Fakturaren –edo pareko dokumentuaren– ordainketa-data



- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- d) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenez).
- e) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio).
- f) Dirulaguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean egongo da 2022ko irailaren 31ra arte.

LAUGARRENA.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza edo enpresen aportazioak ere jaso daitezke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo dira izan inolaz ere gastua baino handiagoak.

BOSGARRENA.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta egoki bada baita kendu ere, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- Diru-ekarpenaren bidez bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

ZAZPIGARRENA.- Bi aldeek konpromisoa hartzen dute proiektua gauzatzeko lanen zein bertan jasotzen diren informazio guztien konfidentziasuna gordetzeko; informazio hori ezin izango zaie hirugarren batzuei eman, bezeroak aurrez baimena ematen ez badu bederen. ENPRESARE elkarrekin proiektua garatzean eskura dituen informazio guztien konfidentziasuna gordeko du.

ZORTZIGARRENA.- Ezin izango da aldaketarik egin aurkeztutako proiektuan, ez eta bertan aurreikusten den denbora baino gehiago erabili ere, aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu.

Aldaketarik eginez gero, udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango du, bai eta emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazi ere.





Begarako
Udala

BEDERATZIGARRENA. - Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Begarako Aurrekontuetako Udal Araua.

HAMARGARRENA.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan hartutako betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hitzarmena hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan, eta nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dut.



Izpta.: Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea



Izpta.: Xabier Berasategi
Enpresare elkarteko lehendakaria



Izpta.: Mª Concepcion Ugalde
Idazkaria

